

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Otsailak 17, 11. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Mila pertsona inguru dago bertako eritetxeetan ingresaturik

Santa Agedako Ospitaleak, gure artean dugun errealitatea

Buruko gaisotasuna duten pertsonak jendearengan erreakzio ezberdin ugari sortu izan dute, batzurengan beldurra, beste batzurengan pena eta beste batzurengan burla. Arrasatearrok jadanik ohiturik gaude gaiso hauekin elkar bizitzen Santa Agedako ospitaletako gaisoak gure artean bizi bait dira. Ospitale hauek izen ezberdinez ezagutzen dira gure artean zoroetxeak, "La isla" edo Santa Ageda besterik gabe. Gauza ugari entzuten da beren inguruan baina egia zeitzuk diren eta zeitzuk ez jende gutxik daki.

(12. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Jose María Bengoa pasiotarra, Aita Santuak beato izendatuko. Gerra zibilean beste 25 pasiotarrekin batera hil zuten Gesalibarreko apaiz hau, Aita Santuak datorren Maiatzean beato izendatuko.

(8. or.)

"Euskalan"

Euskara lantokietara

"Euskalan", AEDn barruan enpresetan euskara suzpertzeko asmoz duela lau urte sortutako taldea dugu.

(9. or.)

ELKARRIZKETA

Julio Galarta:

Euskal Herriak betidanik eman ditu pintore onak. Herrian bertan badaukagu adibide bat.

(19. or.)

PODIUMA

Kote Lopez Rekarte:

Futbolarien familia bateko bigarren anaia dugu eta Eibarren jokatzen du.

(21. or.)



Etxe-Aundi
Restaurant

Torre Auzo, 9 - Teléfono 943/781956 - OÑATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

17 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "El oso" Novedades (Bergara): "El principe de las tinieblas", 10,30etan.
- **Hitzaldia:** Euskal Espedizioa Groenlandiara, 6,30etan; Udal Zinemana (Eskoriatza).
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

18 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "El oso" Novedades (Bergara): "El principe de las tinieblas", 5-7,30-10,30.
- **Hitzaldia:** UNEDen (Bergara), goizeko 10 etan: "Greziako kondagintza historikoa".
- **Musika:** Akordeoi-kontzertua, Amayan, 8etan.
- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

19 IGANDEA

- **Zinea:** "El oso" Novedades (Bergara): "El hotel de los fantasmas" 5-7,30-10,15.
- **Antzerkia:** "Ertzainak al pil-pil" (Geroa), Compañía de Marfan (Bergara), 8etan.
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Arrabala.

20 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "El oso" Novedades (Bergara): "El hotel de los fantasmas", 7,30etan.

✓ ERAKUSKETAK

- **Euskal Hitz:** 17tik aurrera, Errotalde Kultur-Etxean (Bergara).
- **Gizakia eta bere inguru ekologikoa:** 17tik 21arte, Eskoriatzako Kultur-Etxean, egunero 6etatik 8etara (Igandek, 6-9).
- **Dodecaorton (Eliza Ortodoxoaren 12 jaiak):** Ikonoak, Etxe Aundi Jate-txean (Oñati).
- **Sabin Eraña:** Pintura-Teknika Mistoa. Galeria 44n.

✓ IKASTARROAK

- **Zeramika:** 4 hilabetetako (Otsailak 20 - Ekainak 20). Bi ordutegi: 3-5; 7-9. Apuntatzeko epea: 27rarte. Informazioa: Leniz Zeramika-Eskola.

— Haur-antzerkia:

- Peter Robertsen "Marratxo", Compañía de Marfan (Bergara), 4etan.
- **Zine-zikloa:** Ingurugiroa, Udal-Zinemana (Eskoriatza), 9,30etan, "Copkiller". Zuzendaria: Roberto Faenza.
- **Goardiako farmazia:** A.M. Morales, San Andres.

21 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "El oso"
- **Hitzaldia:** Euskal espedizioa Groenlandiara, Pol-Polen (Bergara), 7,30etan.
- **Goardiako farmazia:** Ruiz Torre, Ferrerías.

22 ASTEAZKENA

- **Zine-Zikloa:** Ingurugiroa: "Amets elektrikoak". Zuzendaria: Steve Barron. Udal-Zinemana (Eskoriatza), 9,30etan.
- **Goardiako farmazia:** S. Español, Iturriotz.

23 OSTEGUNA

- **Zinea:** Alai: "Roger Rabbit".
- **Zine-Kluba:** "Media hora más contigo". Zuzendaria: Donna Deitch. Amayan, 8,30etan.
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elkano.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karme Zuazubiskar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso
Gerardo Markuleta
Estepan Plazaola

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Usain maitakorrak

Inolako zalantzarik gabe, lurrin (perfumea) eta koloniek ikusgarrizko lotura dute maitasunarekin. Hori badakite ongi publizitatearen hariak mugierazten dituztenek eta horren ezaugarritzat har daitezke gau eta egun komunikabide guztietan -TVn batez ere- azaltzen zaizkigun iragarriak.

J.J. Rousseau-k bere herkideak zikintzat zituen. Frantziar pentsalariak zioenez, lurrina asmakizun lotsagarria da, hain zuzen ere, pertsonen usain txarra estaltzeko erabiltzen delako. Are gehiago, frantziarren lurrinarekiko joera kolektiboa osasunaren kontrako erasotzat zuen. Patrick Suskind-ek bere elaberri ospetsua idaztean -Das Parfum deritzanari nagokio, noski- maixuki erabili zituen produktu usaingarrien inguruko gorabeherak. Rousseuren teoriari bizkar emanez, ez ditu lurrina eta zikinkeria elkarrekin ezkontzen. Maitasuna zuen azken helburua Grénoille protagonistak, era desbideratu xamarrez ulerturiko maitasuna, agian, baina maitasun gizakorra, dudarik ez. Azken finean, gizakiok darabilgun eta poetek abesuriko maitasuna gizakorra da.

Jainkoentzat, berriz, badugu bes-

te opari sarkor bezain usainkorra.. intsentsua eta beronen aldaerak. Ke usaingarriaren bidez betiereko maitasunaren esperantzan.

Errealitatea hauxe da: moeta guztietako ontzi usaintsuak ikus daitezkeela gure etxeetako armairuetan. Une bakoitzak badu bere usaina. Lanpostua eskuratzeko jasan beharreko elkarrizketa dela eta, adiskideekin daukagun afaria, mutil (neska) harekin dugun zita, ostiral gauetz "sexu-ehizean" irten behar izatea, gimnasioko giroa... Baina usain diferenteak izan arren, denok xede berdinekoak ditugu bestearekiko lotura, harremana, erraztea.

Ekialdeko kulturek erro zaharrak dituzte usainen izkutueta. Txina eta Indiako ipuinetan, olerkietan...leku berezia eskaintzen zaio usaina-maitasuna bikoteari, ekialdearek gai horretan darakusten naturaltasunaz. Mendebaldean, ordea, merkantilismoak errito-mailara jaso ditu lurrina eta beronen eragina. Lasterketa eroan ari delarik, barregarriak izan daitezkeen ondorioetara iristen da iragarkien bitartez ezagutarazten zaigun mezuan. Groteskoa, gehiengutan.

Josemari Velez de Mendizabal



CHASYR 1879 ASEGURUAK

GASTEIZ

M. Iradier 15. 233003
Ordezkaritza

ARRASATE

E. Gerrikabeitia 79 74 35
Andoni Conde. 79 60 08

EIBAR

I. Gerrikabeitia 71 21 39
Isasi 17, 1., esk.



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gaueko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

**GIROA
AROTZA**

**ZABALDU BERRIA
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

CASA
ASEGURUAK

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarako
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarako
- * Saltokietako Arrisku Orotarako
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Animaliak lepoan

Interesgarria iruditu zitzaidan 88.eko azken alean argitaratu zenuten bisoi kooperatibari buruzko erreportaia.

Ez du horrek kentzen ordea, esaniko artikulua irakurrita gero sentitu nuen higuina.

Ohituta gaude ikustera untxiak, oiloak eta horrelakoak kaiolatan hazten, hiltzeko sasoi helduko zaien artio. Krudela, dudarik gabe.

Baina, aipatzen ari naizen artikuluan, hori baino gehiago dago.

Animaliak hiltzea haragia aprobetxatzeko, imaginazio gutxi duen gizartearen erakusgarria da, imaginazio eta kontsiderazio gutxi, esango nuke nik... baina bisoiaren hazkuntzarena larriagoa da.

Jatea beharrezkoa den bezala, azal leuneko animal horien esplotazioa, erabat superflua iruditzen zait Euskaraz "superfluo" esateko "azalekoa" erabiltzen dugu. Esku artean dugun gaia da azalarena, larruarena).

Zeren eta, aberastasunaren sinboloa, goi mailako klaseen adierazgarria besterik ez da bisoi-abrigoena.

"Irudimena ez zitzaien falta izan bederatzi gazte langabetuei" dio Vialde kooperatibari buruzko artikulua.

Ze imaginazio behar da animaliak hazi eta hiltzeko, bisoizko abrigoak eta larruzko bestelako "klase zeinuak" egiteko sorturiko enpresan?

Hori imaginazioa edukitzea baldin bada, ni nabil oker. Baina, urrezko eraztun, pultsera, eta harri bitxiz jositako emakumeen lepoan bisoi gizajoen larrua jartzea ez zait oso imaginatiboa iruditzen. Arbuia-garria bai, ordea.

Lehengo batetan, haur bat kaletik zihola, larruzko berokia ikustean esan zuena iruditzen zait aproposa: "Begira ama, andre horrek animalia bat dauka lepoan. Ze pena!"

E.A.

Herri-Kiroletarako afizino gutxi

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut, eta neure buruari galdetu izan diot, zergatik ote den gure bailaran herri-kirolak (harrijasotzeak, aizkorak, segak etab.) inolako arakastarik ez izatea.

Santamas egunean bezalako jaialdi bat antolatzen denean ere Urola, Leitza edota, akaso, Bizkaia parteko jokalariai ekarri behar izaten dira bertan inor ez dagoelako.

Gutxienez kuriozkoa da gure herri, auzo, baserri inguruetan hori baino zaletasun gehiagorik ez sortzea eta presentzia gehiagorik ez lortzea herri-kirolak.

Gai honek mereziko luke azterketatxo bat. Ez?

Fermin Arasa.


Ezkontzak direla eta

Gure gizartea aldatu omen da, orain dela 40 urte oso baliogarri ziren balore eta instituzioek beren pisua eta zentzua galdu omen dute. Baina zuen aldizkaria begiratu ondoren badirudi guzti hori gezur hutsa edo zenbaitzuren irudipena baino ez dela. Txutxumutxuak orri-astero-astero ezkonberri edo ez hain berri batzuren argazkia argitaratzen duzue eta saiatu naizen arren ezin dut ulertu argazki horren zentzua. Zein helbururekin argitaratzen dituzue argazkiok? Ezkontzaren instituzioa legitimatu nahian? Bizitzeko beste era bat aukeratu duten pertsonen bizimodua arbuiatu nahian?

Agian, ez duzue horrelako interes berezirik hori egitean eta bitxikeria huts gisa argitaratzen dituzue. Dena den, hori horrela bada, zergatik ez duzue ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteen argazkiak, edo eta homoxesual bikoteen argazkiak argitaratzen? Gure gizartean barietate eta gusto ezberdin ugari dago.

Jone

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezten.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den dirua da.

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

LEINTZ BAILARAKO BERTSO-TXAPELKETA

(Nagusien arteko kanporaketa)

Otsailaren 18an, gaueko 10,30 tan

Apotzagako Auzo-Etxean

Antolatzailea: Leintz bailarako Bertsolari Eskola

Lore lurrindegia

Goi-kosmetika eta lurringintzan espezializatua

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99

BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

- * Pisu eta Lokal
- * Orube eta Lursail
- * eta balorapenak

gure aholkularitza, gestio
eta salmenta-zerbitzuak
eskaintzen dizkizugu.

Maalako errebala, 6. 1

ARRASATE

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28-B Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE



KILIKOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Zure eritziz, zergatik aldatu da eguraldia ?



Luzia Azkuaga
(Baserritarra)

Ez dakit baina ez dago ezer, ez behientzat janaririk, ez arbirik, ez ezer.

Pastoriak hil honen 15etik aurrera edurra egingo duela dio, ikusi egin behar. Halako negurik nik behintzat ez dut inoiz ezagutu.



Felipe Murgoitio
(Baserritarra)

Zer dakit nik ba? Oso siku dago dena. Bedarrik ere ez dago. Ni ez naiz gogoratzen beste horrelako negu bateaz. Eguraldi txarreko neguez bai, baina horrelako sikutiez...

Gura badu egingo du eta beste-la egon egin behar. Datorrena hartu behar.



Jose Zubia
(Baserritarra)

Batek daki! Nik behintzat ez. Horrelako sikuterik eta horrenbeste izotz ez dut nik ezagutu. Ondion honek ez du garrantzi handirik, baina eguna luzatzen hasten denean euria behar dugu bedarra irten dadin. Sikutiak baino kalte handiagoa izotzak egin du.



Felipe
(Artzaia)

Jaungoikoari galdetu beharko diozue. Eguraldi honek mesede beste kalte ekarri digu. Janari gutxi gero udan izango dira kontuak orduan negua izango dugu.

Hire azken tragoa

OTAMENDIN

Iegarreko pabiloia

Arrasate



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera

Otalora, z/g.

Tfnoa: 79 37 76

MONTE TABERNA

Maalako Errebala, 11

Tfnoa: 79 20 56



SOKOA

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

Arrasate

KAJOI TABERNA


erdiko kale 22

Tfnoa: 79 32 27

I R A T I

Ferrerias kalea

Tfnoa: 79 71 80



Jende askok hartu zuen parte debatean

“Gaztetxea”ri buruzko mahainguruak ezer gutxi argitu

Ostiralean, hilak 10, Monterreneko aretoa publikoz bete zuen Gaztetxeari buruzko mahainguruak. Jendearen gogoan ez zegoen bakarrik besteek esandakoa entzuteko asmoa, de-

batean parte hartzekoa ere bai.

Argi ikusi zen hasieratik bi postura ezberdin jarri zirela mahaikide gisa: alkateak errepikatu zuen Gaztetxearen proiektua defenditzen duela; Gazte Asanbladako bi ordezkari, berriz, adierazi zuten Gaztetxea ez dela proiektu bat, azkenengo bi urtetan zailtasun handiak gaudituz (laguntasunaren ezagatik, bati-pat), funtzionatzen ari den tokia baizik.

Alkateak, bere aldetik, Gazte-Leku honen modetia oraindik bi aldetatik definitzeke dagoela esan zuen.

Autogestioa eta azpiegituraren gaiak ere tratatu ziren, lehenak bigarrenaren beharra duela aski garbi gelditu zelarik.

Azken bolada honetan izandako tirabirak, eta fakturaren bat ere azaldu ziren mahai gainean.

Nahiz eta ezer gutxi argitzeko balio, kolore guztietako eritzi interesgarriak entzun ziren bertan.

Jose M^a Bengoa pasiotarra laster Aita Santuak beato izendatuko

Jose M^a Bengoa Aranguren 1890eko Ekainaren 19an Gesalibar auzoan jaio zen, “Sakristaia” deituriko etxean. 18 urte bete berri Alabako Angoston egin zen pasiotar fraile. Nobiziadua bertan egin ondoren Nafarroako Korellara joan zen filosofia ikasketak egitera.

Hamasei urtez Chicago eta Mexikon -apaiz ordenaturik- ibili zen. 1914ean, Mexikon Teologia ikasketak egiten ari zela izan zuen espetxe-ko esperientzia.

Hamasei urte hauek bete ondoren, Korellara itzultzen da. Zarago-



Jose Maria Bengoa (1890-1936)

za eta Damielen (Ciudad Real), bikario gisa, osatuko du bere bizitza.

Sermolari bikaina zen fraile hau. Herriz herri ibili zen hizlari bezala eta ordu asko egin zituen aitorlekuan. Hauze zen bere lema: “anima eta hurkoaren alde lan egin”.

1936ko Uztailaren 21ean, gaueko 11,30etan milizianoek Damielen pasiotarren konbentua inguratu zuten. Bi hilabete geroago, apaiz izatearen erru bakarrik bizkarreratzen ziotelarik, Carrion de Calatravan tiroz hil zuten, bere gorputza urputzu batera bota zutelarik. Guztira, 26 pasiotar hil zituzten.

Gaur egun bere hezurak Valle de los Cañados aurkitzen dira beste hezur askoren artean bereizterik ez dagoen moduan.

Maiatzean beato izendatuko omen

Jose Maria Bengoa, martiritza jasan zuten beste 25 lagunekin batera, elizak zoriontsu edo beato izendatuko du laister. Erroman izango da elizkizuna, datorren Maiatzaren azken aldera, uste denez.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak

INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN DITUGU ZURE EROSKETAK!!

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

Parrokiako bobedatko hondakinak kenduko dira

Parrokiako bobedek gainkarga sufritzen dutela ikusiz, Aranzadi Elkartearen zuzendaritzapean gazte talde batek bobeda hauen hondakinak kentzeari ekingo dio datorren Uztailean.

Proiektu hau "Gazteentzako Lan-Ihardunaldiak" delakoan barruan kokatzen da. Ihardunaldi hauek Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu, jatorri ezberdinetako gazteen artean harremanak ezartzeko asmoz. Lanak 15 egunetako bi txandetan egingo dira, bakoitzean 20 gaztek (4 euskaldunek eta kanpoko 16k) parte hartuko dutelarik.

Bobeden hondakinak kentzeaz gain, arkeologi-lanak ere egingo dira, hauek bi atal izango dutelarik:

— alde batetik, teileria eta zuta-beak aztertuz, XIV. mendeko zenbait datu historiko-artistiko eza-gutaraziko lirareke;

— eta bestetik, teilerian aurkituko diren hezurak aztertuz, paleopatologo batek sasoiko gaixotasun inportanteenak zeintzuk ziren ikertzeko aukera izango luke.

"Beltza" negoziazioaz mintzo

Aretoa betetzen zuen publiko bantentzat mintzo zen asteartean Emilio Lopez Adan, "Beltza".

Beltzak kuestionatu zuen demokrazia, hauteskundeen bidez bakarrik egiten dena hartzen bait da demokratikotzat. Botoek ez dute arrazoirik ematen, indarren arteko harremanak adierazi baizik.

ETAk negoziazioa eskatzeko legimitate historikoa lortu du; honen arabera, gaur egun ematen da desgogitasun bat legalitate eta legimitatearen artean.

Negoziazioa, bestalde, ahuleziaren lorpena da; erresistentziak ez bait dezake etsaia menperatu, ezta



Tregua eta negoziazioa aztergai

alderantziz ere, gelditzen den irten-bide bakarra negoziazioa delarik.

Estatu espainiarrak euskal erresistentziaren beharra duelaren tesia ere defendatu zuen. Beltzaren eritziz, "behar gaituzte nazionalismo espainiarra indartzeko; nazionalismoak, berez, beti etsai baten kontra jotzeko beharra baitu".



J. Etxebarria, Iñaki Aranburu eta P. Arburua

"Euskalan": euskara lantokietara

"Euskalan" AEDn barruan eta funtzionamendu autonomarekin, enpresatan euskararen erabilpena suspertzeko sortutako taldea dugu.

Lan-talde honek hainbat kanpaina burutu ditu dagoeneko, aipagarrienak hauek direlarik:

— Kooperatibetan 1980eko euskararen Plangintza egunean jartzekoa. Kanpaina honen erantzun konkretu bat ULGORretik etorri da. Aurreko Plangintzaren arabera euskararen ezagupena beharrezkotzat jotzen ziren zenbait lanpostuetan inkestak egin ziren; eta ondorioz, 12 pertsonentzat 6 hilabetetako ikastaroak antolatu dira, enpresek ikasleei kostu erdia ordainduko dietelarik.

— S.A. etara zabaltzea, Burdin-metalgintzako Konbenioko euskarari buruzko akordioak gauzatzeko asmoz.

Bai Kooperatibetan bai S.A. etan euskararen erabilpenerako Plangintza eta Euskara Batzordea osatzea, eta hainbat kasutan dinamizatzailea sortzea, eskatzen dute.

GABINETE MEDIKOA

Medikuntza
Digestibidea
Endoskopla
Ekografia
Anallsiak

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08



EUSKADI
IRRATIA

Euskadi Irratia

Fm 104'4

Arrasate eta inguruko albisteak astelehenetan eta ostegunetan

12etatik 1etara

Programa

GOIZEAN BEHIN

laburrak

☐ “Ecomovil” Bergaran

“Ente Vasco de Energia” delakoaren “Ecomovil” izeneko ekimen baten arabera, Martxoaren 6tik 16ra bitarte Bergarako “La Vergaresa” zenaren kotxeretan kotxeen debaldeko araketak egingo dira.

Behin araketak eginda, jabeak bere kotxea eraman nahi baldin badu, edozein tailer kontzertatutan esku-lanaren %30ko beherapena izango du.

☐ Kilometroak Oñatin

Aurtengo “Kilometroak” Oñatin izango da datorren Urriaren 1an. Aurtengo edizioa Txantxiku Ikastolak antolatuko du, izango diren trafiko, aparkaleku eta azpiegitura-arazoak dagoeneko aztertzen hasi direlarik.

Organizazioak 1.200 laguntzaile behariko ditu.

☐ Lurrazpiko aparkalekuak egiteko konkurtsoa

Lurrazpiko aparkalekuak egin eta esplotatzeko proiektuak aztertzeo konkurtso publikoa laster zabalduko da.

Baliteke Cordoba y Oro eta Obenerrakako auzokideak, aparkalekuak beraien auzoetan kokatuko direla eta, konkurtsoan parte hartzeo elkartzea.

Arrasatek 369 aparka lekutako defizita du.

☐ Fagorren soldatak %10a igoko

Datorren Apirilaren 1etik aurrera Fagorreko langileen soldatak %9'9a igoko dira.

Portzentaia erabakitzerakoan, 1988ko IPC delakoaren igoera eta hiru urtez behin enpresan egiten den estudio baten emaitzak hartu dira kontutan.

T x a n d a k a

Gorosarriren I. mendeurrena

Aurten Eskoriatzako zenbait talderi izena ematen dion Eduardo Gorosarri Maiztegiren lehen mendeurrena ospatzen dugunez, hona hemen haren bizitzari buruzko zertzelada batzuk.

Eduardo Gorosarri Eskoriatzan jaio zen 1989ko Urriaren 13an, bere gurasoak Juan de Dios eta Angela zirelarik.

Bere bizitzara nolabait hurbildu asmoz, hiru zutabe nagusitan finkatu nahi nuke idazlan hau. Eduardo musikagile, euskaltzale eta apaiz


Musikazale;

Hautzarotik sartu zen, bere aitaren eskutik, musikaren hastapenetan. Hamalau urte zitularik Sopuertara Parrokiko organista eta udaltxistulari bezala joan omen zen. Garai hartako mila pezetatoko soldata izanik urtean.

Hamabost urtetako mutil koxkorra zen Salamankako Seminarioko Organista-plaza bereganatu zuenean. Eginkizun honek apaiz izateko behar zituen ikasketak dohainik egin ahal izatea posibilitatu zion.

Salamankan sei urte bete ondoren Gasteizko Seminariora etorri zen Teologia-ikasketak egitera. Bertara iritsi bezain azkar “Maestro de Capilla y Director de Coro de Seminario” izendatu zuten.

Bere lehendabiziko meza, Eskoriatzako San Pedro Eliza nagusian 1917ko Ekainaren 21ean eman zuen. Laster Ondarruko Parrokiko Organista izendatu zuten. 1918an Begofia Basilikako Organista-plaza lortu zuen beste hamaika organu-joleren artean. Jesus Guridiren organu-klaseetara ere joaten zen.



Gerardo Armendariz*

1927ko Irailaren 27an sortu berri zen Euskal Herriko Txistulari Elkartearen lehendakari izendatu zuten Arrasaten.

Eliz gizon:

1943 urtean Eduardo Ingalaterratik Eskoriatzara itzuli zenean, bere loba den Piedad Gorosarri ezkondu zuen. Leitzan

egon zen garaiko bizitza ondorengo honetara murriztu zen: Goizean meza ematen zuen. Bertako apaizekin ibilaldi dexente egin eta elizako organua jotzen ihardutetik aparte konposatu egiten zuen.

Euskaltzale sutsua:

1937ko Maiatzaren 21ean, beste bi apaizekin batera, Ingalaterraino erbesteratua izan zen 4000 haur exiliatuen kapeilau bezala. Gerora, Belgika-ra joan zen. Aleman-ek Belgika bereganatu zutenean Gestapok atxilotu zuen ingeles-espia zelakoan. Latinez errezitatu behar izan zituen hainbat testu sakratu bere nortasuna argitzeko. Norbaitek aliatuengana eraman ahal izan zuenerako “angina de pecho” delakoaren lehen aztarnak omen zituen.

1940ko Ekainaren 30ean Eskoriatzara itzuli zen. Hainbesteko eragina zuenez jendearengan, Eskoriatzan paseiatzera irtetea ere debekatu zioten

Artikulu honi amaiera emateko zera esan nahi nuke. Eskoriatzako herriak, Eduardo Gorosarri jaunari asko zor dionez, plazaratu dadila bere omenez Urriaren Eskoriatzan ospatuko diren ekintzetan.

Eskerrik asko Eduardo Gorosarri!

(*)Gorosarri Abesbatzako kidea

**Agirre
Miota
Gestoria**

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.

Tfnoa: 79 34 33

Memesa

Arrasate

79 42 22

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8

Tfnoa: 79 63 34

Abaroako ileapaindegia

Norbaitek kontrakorik uste badu ere, Mondragoeko jubilatuek gero eta ardura handiagoa dute beren itxuraz. Abaroako ileapaindegira joan baino ez duzue hori egiaztatzen.

Goizetan, 9etatik 12etara, gizonentzake egoten da zabalik. Asko dira ilea moztera joaten direnak eta, esan digutenez, oso pozik.

Arratsaldez emakumeen txanda da. Hiru ileapaintzaile daude, Carmen, Maribel eta Elena, ordubietatik zazpiak arte daudenak. Lau urte darama ileapaindegia zabalik eta



gauzak ezin hobeto doazkio, kalitate prezio erlazioa ona da eta permanenteak 1.800 pta. balio du, mozteak 250, garbitzeak eta markatuak 375 eta tindatzeak 1000 pta. Ostiral eta larunbatetan eskubete lan izaten omen dute.

izen propioak

□ **Bittor Aranzabal**, 35 urtetako ingeniari arrasatearra eta Eeko zinegotzia, azken kargu hau uztekoan dabil, antza. Bittorrek hiru urte eman zituen Francoren gartzeletan. Mikel Larunberen ordeztatu zen udal-gorporazioan, Hezkuntza Bartzordeko lehendakaria izateko. UGORren Kontseilu Errektorean dago eta baita Fagorren Kontseilu Orokorrean ere. Berriki Garagartzako Fagorren Ikuztailu plantako zuzendari izendatu dute.

□ **Juan Mari Elexpuru**, 38 urteko idazle uberarrari orain dela gutxi argitaratu diote 1987ko Irun Hiriko Ipuin Saria irabazi zueneko ipuina, "Lasai, Juan Antonio, lasai". Bergarako ikastoletako irakasle ohia, orain UNEDeko euskara departamentuan dabil lanean. Honez gero hiru itzulpen-liburu argitaratu ditu eta zenbait ipuin. Orain, Arrasate Press-en ("Zelebreekirixak") idazteaz gain, ipuin liburu berria prestatzen ari da, laster argitaratzeko asmotan.

□ **Mikel Otxoa**, 20 urte. Oxifia baserriko gazteak datorren Martxoaren 19an, S. Jose egunez, inguruko futbolzale guztien omenaldia jasoko du, Atxabalpeko zelaian Real Sociedad-Osasuna partiduan. 1986ko Azaroaren 16an, soldadutza egitetik libratu zen egun berean, Atotxako harmailetan zegoela, jausi eta paraplejiko utzi zuen sekulako kolpea hartu zuen bizkar hezurtean. Harrez geroztik gurpil-aulki batean dabil.

□ **Jesus Garmendia**, 47 urtetako filologo azkoitiarra S. Frantzisko Xabier ikastolako lehendakari berria dugu, kargu horretan Kepa Salaberria ordezkatu duelarik. Jesus Eskoriatzako Irakasle Eskolako zuzendaria izan zen sei urtez eta AEDko lehendakari beste lau urtebetez. Bitartean literatura irakasten segitzen du Eskoriatzan.



Udaleko Gazte-Zerbitzuak antolatutako anagrama-lehiaketan **Juan Luis Zabala "Mallabi"** suertatu da saritua. 50en bat lan aurkeztu ziren, azkenean "Hiru Zango" ezizenaz aurkeztu zenak irabaziz. Gogoratu "Maiabi" k Haratuzteen kartel-lehiaketa ere irabazi zuela. A ze artista! (beste 50 talego!!)



Txotxongiloa Bergaran. Bete egin zen asteartean UNEDeko areto nagusia adin guztietako jendearekin. Ikusmira zegoen "Izuikara haripean" TAUN TAUN talde berga-

rraren obra hau ikusteko eta, egia esan, pozik asko irten zen jendea. Amateurrak direla kontutan izanda, sekulako lan ona egin zuten bai eszenatokian, bai musika, ahotsak eta efektu bereziekin eta baita hariak zuzentzen ere. Gezurra dirudi hain kalitate handiko lana nola egin daitekeen horren bitarteko apalekin.

Baina...erabili zuten euskara benetan kaskarra izan zen, artifiziala, itzulpen usaina zeriola. Are tamalgarrigoa emanaldi gehienak euskaraz ematen ari direla jakinda.

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

arrasateko yoga elkarte

OINARRIZKO MASAIA IKASTAROA


*Aste burukoa. Otsailak 25- 26

*10 egunetakoa. Hasiera: Otsailak 27.

2 talde, Goizez eta arratsaldez


Informazioa-inskripzioak

"IZADI" Sendabelarren denda, Sebero Altube 8, edo 79 35 76 telefonon



Santa Agedako ospitaleak ehun urte bete behar dutenean

Arrasatekoa ez den norbait igande eguerdi batez gure herriko kaleetan zehar ibiliz gero beharbada harritu egingo litzateke aurkituko lituzkeen pertsonaia bitxiak ikustean. Arrasatearrok, aldiz, ohituta gaude Santa Agedako gaisoekin elkar bizitzen. Dena dela, bertako gaisoak ikustera ohituta egon arren eta Santa Agedari buruz askotan hitz egin arren, bertako errealitateaz ezer gutxi dakigu. Gure herriaren parte izanik badirudi ez dugula ezer jakin nahi, agian ezjakintasunak sortzen digun beldurrak eraginez.



Errepidea berez, Ospitalearen terrenoetan dago

Lehen bainuetxe, orain sikiatriko.

Gaur egun ospitaleak direnak, bi bait dira, baina hau beranduago argituko dugu, pasa den mendean luxuzko bainuetxe genuen; bertara Europa eta Espainiako handiki ugari hurbiltzen zen, bainuetxeko urek zuten ospea zela medio.

Baina, mende bukaeran Canovas de Castillo, Espainiako gobernuko lehendakaria hil ondoren, bainuetxeak zuen entzutea galdu eta jabeek saldu egin behar izan zuten, Aita Meni fraileak, bainuetxea erosi eta Santa Agedako ospitala ireki zuela-rik 1898an.

Garai hartan ospitale bakarra zen, bitan banatua egon arren, garaiko legeek eta ordena erlijiosoan arauk ez bait zuten gizon eta emakumeak ospitale berean zaintzen ustez. Beraz, errepidearen alde batetan gizonen ospitale kokatu zen eta beste aldean emakumeena.

Mende honetan jabegoa banatu

eta ospital bi sortu ziren. Urte batzutan zuzendaritza medikoa biek bera izan bazuten ere, praktikan bi ospitale izan dira beti.

Aita Meni ospitala

Hau dugu Santa Agedako emakumeen ospitaleren gaur egungo izena. 1980. urtean ospitale berria egiten hasi eta dagoeneko bukatua ikus genezake. Ospitale modernoa dugu berau eta ospitaleko arduradunen hitzetan XXI. mendeak sikiatrian ekar ditzakeen berrikuntzak egokitzeke prestatua. Berritze nahi honi segituz, izena ere aldatu diote ospitaleari.

Instalazio ugari ditu bertan, batzu kanpokoak ere erabiltzeko egokituak, kongresu-aretoa adibidez. Kafetegia, ileapaindegia edo denda ere aurki genezake bertan, ospitaleak hiri txiki bat dirudielarik. Ospitalea "hermanas hospitalarias del Sagrado Corazon de Jesus" monja-kongregazioaren ardurapean dago eta berau egiteko dirua mundu osoan zehar kongregazioa osatzen duten etxeek eman dute. 105

petsona ditugu bertan lanean 500 emakume zaintzeko. Lau sailetan banaturik aurkitzen da ospitalea: ingrosoen, geriatriaren, estantzia ertain eta luzeko egoiliarren eta subnormalen sailetan, hain zuzen ere.

Kapaz diren emakumeak lanean dihardute eguneko zenbait ordutan, kartonajea, giltzagintzan edo puntu egiten eta izarak josten. Atsedendiko orduak kafetegian ematen dituzte.

Gizonezkoen ospitalea

Gizonen ospitalea lehengo bainuetxean dago, 300 gaixo ditu momentu honetan eta 6 sail ezbezdinetan banatua aurkituko dugu. Unitate handiena alkoholi-koena dugu, 153 gaixoz osatua. Baina sikiatriko bat ote da alkoholiko bat zaintzeko edo sendatzeko lekuri aproposena? Galdera bera ospitaleko arduradunei luzatu diegu eta ezezko borobila jaso dugu erantzun gisa; hala ere, beraiek ezer ezin dutela egin adierazi digute, gizarteak irtenbiderik ematen ez dien gaisoak sikiatrikora bildaltzen dituztela gaineratuz.

Emakumeek ospitale berria egin eta beraiek gauza bera egin behar ez ote duten galdetu diegu, Matias fraileak, bertako jerenteak, zera erantzun digu: "lehenik eta behin, leku berean funtzio bera betetzen duten ospitale bi egoteak zentzurik ez duela esan behar. Dagoeneko Santa Agedan ospitale bakar bat eduki beharko genuke eta berau mixtoa izan, beste edozein ospitale bezala. Hau ez da lehiaketa bat, monjek ospitale berria egin dutela eta ez gara gu gauza bera egiten hasiko. Kontua zerbitzu ona eskaintzea da. Akordio batetara heldu beharko genuke eta poliki-poliki ospitale biak bat egin; jakina, gaixo kopurua gutxituz. Ospitalaeren

kokagunea ere kontutan izatekoa da, inguruarekin oreka lortzeko. Babatean emakumeen ospitaleko gaixoak eta gureak hartu eta herrira jaitsiko bagina Arrasate inbaditu egingo genuke." Beraz, ospitale berri baten beharra ez dute ikusten; hala ere, beren zerbitzuak hobetzen ahalegintzen dira eta adibide gisa hilabete honetan 30 gaixok Alikanterara egingo duten bidaiak aipatu digu.

Baina gaixoak benetan ondo zaitzen dituzte?

Arrasatearren artean ahoz aho ibili izan da beti Santa Agedako gaixoen egoera txarra; "edozein lekutara joan baina Santa Agedara ez", horrelako esaldiak entzutea ez da batere arraro gertatzen. Gaixoei ez zitzaizela jaten ondo ematen, ospitaleak zikinak zeudela, etab. luze bat.

Gai honen inguruan egia zer den eta zer ez den jakiteko ospitale bietako arduradunengana jo dugu eta bietan erantzuna antzekoa izan da. Ez dute ukatzen garai batetan gaixoei ez zituztela behar zituzten prestakuntzak baina honi esplikazioa ere ematen diote. Buruko gaixotasuna zuten pertsonen orain arte segurantzaren soziala ez da arduratu, Santa Ageda bezalako ospitaleak diputazioen mende zeudelarik. Garai batetan Penintsula iparraldeko probintzietako gaixoak zentru hauetan biltzen ziren. Diputazioek ez omen zuten behar besteko diru kopururik ematen eta eritetxeak orain baino askoz ere gaixo kopuru handiagoa izatean —gehien izan dituzten garaian emakumeenak 1000 gaixo eta gizonezkoenak 800 izan dituzte— ez omen zegoen eritetxeak mantentzeko adina diru. Gizonen

ospitaleko arduradunak garai batetan Gipuzkoako gaixoak ez zituztela onartu azaldu digu, bertako diputazioak pertsonako ematen zuen diru kopuru txikia zela eta. Momentu honetan Osakidetzarekin komenioa dute sinatuta eta badirudi gauzak asko hobetu direla.

batetan egoteak jendea sozialki markatzen duela azaldu digute, eta horrelako eritetxe batetan ingresatu aurretik beste bide ugari agortu behar da. Dagoeneko, herrietan buru osasunerako zentru ezberdinak ditugu. Lehen momentuan gaixoak zentru hauetara zuzendu beharko



Hau dugu, Aita Meni Ospitale berria

Sendabidearen garapena

Edozein sikiatrikoz hitz egitean pelikuletan agertzen diren zoroetxeen irudia datorkigu gogora eta erreallitatea bestelakoa dela esan behar, Santa Agedako kasuan behintzat. Lehenik eta behin, bertako medikuek buruko gaixotasuna duen pertsona senda daitekeela azpimarratu digute eta horren inguruan entzun ditugun beste baieztapen guztiak mito omen dira. Iaz emakumeen ospitalean 100 ingresotatik 9 baino ez ziren izan bertan geratu zirenak. Medikuntzak arlo honetan garapen handia jasan omen du, baina gizartearen garapena sendabidearena bezain garrantzitsua omen da. Jadanik, gizarteak gaixo hauek gaixo gisa onartzen omen ditu eta ez zoro edo ero gisa etiketatu. Honek garrantzi handia du gaixo hauen sendabidean. Hala ere, gaur egun Santa Ageda bezalako zentru

dira. Jasotako laguntza nahiko izan ezean ohizko ospitale batetara zuzenduko da eta aurreko guztia nahiko gertatuko ez balitz gaixoak sendatzeko Santa Ageda bezalako eritetxe espezializatuetan batetan ingresatu beharrean aurkituko litzaiteke.

Osakidetzak ospitale sikiatriko-tako ingreso saila kendu nahi du, eritetxe hauek epe ertain eta luzeko egoiliarrei mugatzeko.

Dena dela, esanak esan eta berrikuntza berrikuntza, gaixo bat beti gaixo izango da, nahiz buruko nahiz beste edozein gaisotasun-mota izan, eta sikiatrikoak buruko gaixotasuna duten pertsonak zaintzeko leku aproposenak diren ala ez, eztabaidatzen sartu gabe hobe dugu gure osasuna mantendu, bai fisikoa bai buruko.



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


PRONOVIAS DOCHY



Jaun-
-Hartzeak

Independencia
20
Gasteiz

Famauen ahotik



EUGENIO OTXOA, "GERRA":
"Umetatik ibilli nok zerbaitetan sartute".

FITXA TEKNIKUE

IZENA: Eugenio Otxoa "Gerra"

JAIXO: Azube Azpin, 1951-VII-14en

ALTURIE 1'65, bañe hazten

OFIZIUEN Tiple, dantzari, ume-zain, saskibaloj-jokalari, alkate...

Mutikue baserrixen jaixo...

Bai, aitte "Comerciante naval" zuan; bai "negocio de nabos", baserritarra esaten badok pobretzat joten haue ta.

Ama esne-saltzen ibiltten zuan. Orduen inguruko baserritarrak Etxaluzen abarkak kendu eta zapata lustriauek jazten jittuen. Gu hasi gitzuan bai gorutze eta bai berutze oñetako berak ebalten, "todo terrenuek": ferixara juen bier bazan abarkak eta elixarako zapata dotori-ek.

... kalien eskolatu...

Nire lehenengo eskolie baserrixe izen zuan, "harrapau-eskolie", keixa harrapetan edo hola beti. Gero Garibaiko eskolara juen nitzuan. Garibain nebilela amak San Viatorren sartu gure ninduan hobatxue zala-ta. Juen zuan eta lehenengo intentuen ezezkie. Hurrenguen kapoi pare bat eta arrautzak hartute juen zuan eta taka mutikue barrure.

Kojuaz eta profesionalien be ibili nitzuan.

... gizondu...

Gazte-gaztetatik ibilli nok sal-

tsan baten sartute: koralien, dantzan, skautien,... Euskal Udalekuetan be bai, Beiren, Olite onduen. Behin, juen gitzuan handik Tafallara Iagoba, Juanito Saizar, Xabalo ta laurok. Egundoko juergie bota ta baginguzan etxera jueteko ta, Xabalok bera ezetz, bera ez oiela, jueteko gure bagauen. Juen gitzuan eta han agertu zuan hurrengo egunien... Itxurie gero lo eitten kamioin batera edo juen zuan eta kamioiorrek Iruñafarño eruen juan. Gero taxisien bueltau bier...

... eta gizon einddekuen baserrire buelta

Bai, eta han be aproba danak ein jittuat. Lehenengo astuaz. Andriek erregalau jostan urtebetetze egunien. Lanetik etxera juen ta, San Fermifetako pañelo ta guzti astuoi, firme. Bañe ha be emonkorra kakien bakarrik eta... kendu ein naixuan.

Gero rotabator txiki bat erosi naixuan eta hareaz be ederra pasau jatan. Juen nitzuan patatie eritteko lurre lanketan eta landu ahala patatak urteten juen. Neure artien... ona dok hau lurrau! Aurreko egunien aitteñarrebak erein jittuan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Konfesatzen

(Juan San Martinen "Zirikadak liburutik moldatuak)

Behin joan zan Fernando izeneko mutiko oker bat konfesatzera eta sartiaz bat esaten dotsa abadiak:

— Esaidak mutikua, zenbat Jangoiko dittuk?

— Hiru, jauna.

— Hiru? Astokillo galanta hi. Hiru Jangoiko orduan, e?

Gero sekulako erretolikia sartu zotsan mutiko gizajuai zeruak eta infernuak harrotuaz, baiña ez zotsan esan Jangoiko bakarra zeuanik, ero esan bazotsan be, mutikuak ez zotsan entendidu behintzat. Amaittu ebanian Pello bere laguna ikusi eban txandian zain. Urreratu jakon eta esan zotsan.

— Hi, abadiak zenbat Jangoiko dagozen preguntatzen badosk, zer erantzun bihar dotsak?

— Bat bakarra? Nik hiru dagozela esan jotsat eta ixa prejidu najok eta hik bat bakarra dagola? Lepua bihurtukosk oilluui letxe.

■ ■ ■ ■

Beste behin ijitto mutiko bat joan zan konfesatzera eta abadia Dotriña preguntatzen hasi jakon.

— Nork hil eban Kristo?

— Eztakit pa?

— Kristo nork hil eban preguntatu dotsu.

— Eztakit pa nor izan zeikien.

— Eztakizula nor izan zen?

— Ni ez naiz izan.

— Baiña baiña... zu etzarella izan?


Hontan, ijittuak, jeiki, buelterdi hartu eta hankajokuai emon zotsan. Ijitto lagun bat ikusi eban elizara sartzen.

— Konfesatzera hoia?

— Bai.

— Ez hari joan eze, Krespo izeneko bat hil juek eta gure gaife-
ra jatozek kulpak.

Juan Martin Elexpuru



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



ERAÑA
AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE



JESUS ELKORO
ELEKTROTEKNIKA
TB - HIFI - BIDEO

Tfnoa: 791886

ARRASATE

1 9 8 9

EUSKARAREN I. ERAKUSKETA OROKORRA



BERGARA

Otsailaren 17tik 26ra

ERROTALDE JAUREGIA



Eusko Jaurlaritza

HIZKUNTZ POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



ERROTALDE JAUREGIAN (Sta. Ana)

Otsailaren 17tik 26ra

Otsailak 17, Ostirala: 19,30etan, **ERROTALDE JAUREGIAN, EUSKAL HITZ ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA.**

Otsailak 20, Astelehena: 16,00etan, **COMPANIA MARIA IKASTETXEAN, MARRATXO HAUR-ANTZERKIA, PETER ROBERTS.**

Otsailak 22, Asteazkena: 19,30etan, **POL-POL ELKARTEAN, DIAPOSITIBAK, EUSKAL ESPEDIZIOA GROEN-LANDIARA.**

Otsailak 25, 11,30etan, **NOVEDADES ARETOAN, HAURRENTZAKO Marrazki Bizidunak.**

Otsailak 26, Igandea: 12,30etan, **SAN MARTIN PLAZAN, BERTSOLARIAK "EGILOR", "KAXETA", "LOIDISALETXE" ETA "ANATZ".**

Otsailak 24, Ostirala: 23,00etan
**UDAL PILOTALEKUAN
BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIA**



BERGARAKO UDAL EUSKARA BATZORDEA

“Artxandakoa sarraskia izan zen. Etortzen zen atzetik jende berria, benga goazen aurrera, eta ehun metrotara dena gorputzez betea. Han erori zen gure komandantea ere, Gorroñogoitia, Caja Laboraleko zuzendariaren aita, eta bere orde z jarri ninduten”.

(Kepa Ordoki, ANVko gudarien kapitainak “Larrun” aldizkarian)

“Ardanza Diputatu Nagusiak eta Estomba Diputatu Foralak, instituzio batetik bestera pasa eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari eta Herri-Lanetako Kontseilari karguak hartu zituztenean, zesantiak kobratzea (1.533.589 pta. lehenengoak eta 1.375.050 pta. bigarrenak) Araudiko 40. artikuluan aurrikusitako zerbait zen, eta beraz, guztiz legezkoa, nahiz eta Euskadiko Ezkerrak lotsagarritzat jo zuen”.

(Estrella Intxausti kazetariak DV egunkarian)

“Nobel Saria eskatua izan zen, edo eskatzea proposatu zen behintzat Telesforo de Monzonentzat, literatur Nobela. Harrigarria da, baina egia da, eta arrazoi politikoak zeuden noski eskaera horren gibelean (1964ean izan zen, oker ez banago), baina nork uka Monzon Literatur Nobeldun meritatuagoa zatekeela Echegaray baino?”.

(Koldo Izagirre idazleak “Jakin” aldizkarian)

“Maixutza-ikasketek (Deba Garaian) beren gailurra 70eko hamarkadan izan batzuen ere, orain murrizpen dexentea jasan du. Azken urteotako jaiotzen beherakadak eragin nabaria du eskola lanpostuetan, eta ondorioz, baita berehalako lanpostu bat ziurtatzeko eragozpenak dituzten ikasketa hauetan ere.”

(TU-Lankide aldizkarian)

**Eman al dakiok
esplikaziorik negu
honetan dugun egu-
raldiari?**



Beno, lehenbizi esan beharra dago metereologia zientzia gaztea dela, adibidez Arantzazuko zentruan ditugun daturik zaharrenak orain dela 22 urtetakoak dira. Datu hauekin ezin da esplikazio zehatzik eman. Teoria baten arabera, hamar urtetako hiru ziklo daude. Lehen zikloan, eguraldia sano samarra litzateke, bigarrenean euritsua eta hirugarrenean nahasia, orain hirugarren ziklo honetan egongo ginateke. Dena dela, hau frogatzeke dago. Gaur egungo bizimoduak eta CO₂-aren pilatzeak ere eragina izan dezakeen faktorea izan daiteke. Dena den lehen ere antzeko gauzak gertatu izan direna ondoko atsotitz honek adierazten digu: “Urtarrilean tximeletak baino hobe artegian otsoa”.

Aurtengo lehortea ez da batere normala, baina iazko uholdeak eta udaberriaren suertatu ziren ekaitzak ere ez. Beraz esan daiteke azken urte hauetan eguraldia zoro samar dabilela.

Penintsulako klima honantz dator, gero eta sirimiri gutxiago dugu eta orotara erortzen den euri kopurua ohizkoa izan arren, dena batera jausten da. Gure herria aldapatsua izanik euri hori dena batera ezin xurga dezake lurra eta uholdeak suertatzen dira.

Ez dago arrazoi bakar bat suertatzen ari diren fenomenoak azaltzeko.

Esplikazio zientifikoak alde batera utziz, aste honetan bertan dira kuarta tenporak eta badirudi mendebala geratuko dela beraz espero dezagun behingoz euria egiten hastea.

Peio Zabala

Arantzazuko Metereologia Zentruko Arduraduna

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



**Klase
praktiko
eta
teorikoak**

Olarte, 30
79 89 89



ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ARAUDIA

Udal Bilkura osokoak, joan den Otsailaren 3an egindako sesioan, haserako izaeraz onartu zuen "Etxez etxeko laguntza araudia".

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, 30 eguneko epeaz informazio publikora zabaltzen da, alegazioak eta oharrak egin ahal izan daitezen.

IBILGAILUENTZAKO LURPEKO APARKALEKUAK

Udal-Plenoak, 1989ko Otsailaren 3an egindako sesioan, besteak beste, honako akordio hau hartu zuen:

Udalerrian bizi direnen ibilgailuentzako lurpeko aparkalekuen proiektua erredaktatzeko eta aparkalekua ustiatu eta eraikitzeko egingo den lehiaketa publikoa arautuko duten Baldintza Tekniko Orokor, Ekonomiko eta Juridiko-Administratiboen Plegua onartzea.

Aipatuko plegua, jendearentzako ikusgai jartzea, zortzi eguneko epean, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea arreklamazioak egin ahal daitezzen.

UDALAREN LUR-SAILEN DESAFEKTAZIOA

Udal-Plenoak, 1989ko Otsailaren 3ko bilkuran, El Ferialen eta Elkano kalean hurrenez-hurren kokaturik dauden 1.152 eta 1.312 m²ko orubeak zerbitzu publikotik kentzea eta ondare-ondasuntzat kalifikatzea erabaki zuelarik, hilabeteko epea jartzen da jendeak erabaki horri buruzko erreklamazioak egin ahal ditzan, beti ere Toki-Erakundeen Ondasunei buruz 1986ko Ekainaren 13ko Erregelamenduaren 8-2 artikulua xedatutakoa betez.

U.6.17 UNITATEAREN P.E.R.I. AREN AURRERAPENA

1989ko Otsailaren 3an ospatutako bilkuran Udal-Plenoak erabakitakoaren arabera, jendearen aurrean jartzen da, 30 eguneko epean, "IRGALA Eraikuntza, s.a." enpresak sustaturiko eta Roberto Telleria Arkitekto jaunak erredaktaturiko U. 6. 17 Unitatearen (Otalora kalea-Altamira) Barne-Eraberrikuntzarako Plan Bereziaren Aurrerapenaren dokumentua, beroni buruz nahi diren iradokizunak egin ahal izateko edota, beharrezkoa balitz, beste alternatibarik planteatu dadin.

Arrasaten, 1989ko Otsailaren 14an

ALKATEA

Julio Galarta "Instituzioek ez dute artea bultzatzen"

Gure herriko txoko ugari margotu izan ditu. Kabailatea izkinaren batetan jarrita, albotik pasatzen ginenok harrিতuta edo jakinminez hurbiltzen gitarraizkion zertan ote zebilen ikusteko. Arrasatearra izatez, bertan eman ditu bere bizitzako urte gehienak eta orain pintatzea normalagoa bada ere, bere belaunaldiko arrasatearrek behin baino gehiagotan, agian aurpegi arraro samarrez begiratu diote.

— Arrasate Press: Julio, zer dela-ta hasi zinen pintatzen, nolatan bururatu zitzaizun pintzelak eta margoak hartu eta koadroak egiten hastea?

— Julio Galarta: Pintatzeko nahia, gogoia edo bokazioa, nahi bezala deitu, txikitandik izan dut. Eskolan nenbela zerbait pintatzen nuen eta gero Biteri Fundazioko "arte eta lanbide" eskolan aritu izan nintzen dibujo ikasten. Artearen ulermen oker bat zegoen garai hartan eta kopiak egiten ematen genuen denbora gehiena. Orain badakigu eta ulertzen dugu artea sormen lana izan behar dela, baina orduan... Roneon hasi nintzen lanean, baina bokazioa eta gogoia nuenez, eszedentziak eskatu eta Bartzelonara joan nintzen ikastera. Pintura irakasle izatera heldu nintzen. Oso baliagarri izan zaizkit ikasketak haiek, kolorean, anatomian, mugimenduan etab. etan trebakuntza lortu bait nuen.

— Pintore on bat izateko zer da beharrezko?

— Jakina, ikastea ez da nahikoa, praktikak, aritzeak asko irakasten duen arren. Eskolako ikasketak bukatu eta inor ez da Picasso edo antzeko bat izango, horretarako dohain horrekin jai behar da.

— Pinturaren hiru maisu aipatuko zenizkiguke?

— Beno, Espainian egon izan dira oso margolari onak eta hemen Euskal Herrian ere bai, Zuluaga, Arteta. Gerora era izan ditugu oso pintore onak guretzat

eredu izan direnak. Ea maila horretara heltzen garen... Horiek jai zirenetik bizitza osoan horretan ihardutearen zortea izan dute, bai familiaren egoera zela eta, bai beraiek berezkoa zutelako.

Guk, aldiz, ez dugu zorte hori izan, ez gara txikitandik eskola on batetara joan, saiatu izan gara baina...

Herrietan nabari da, arteak ikasteko leku aproposen falta. Arrasate adibidez, betidanik herri industrialia izan da eta haurrak arlo horretara zuzentzen ditugu oso gazteak direnetik. Arte pertsona batzuren pribilegioa izan da, garai batetan abentura ere bazen, zer egiten du ero horrek? Lastima da, arteak gaur egun alderdi ugari ditu, industriari aplikatzen dakizkionak ere, diseniua adibidez.

— Egundak gutxi dela Dali hil da eta galdera hau zuri zuzentzea ezinbesteko ikusten dugu; zer suposatzen du Daliren heriotzak?

— Ez dakit, niretzat Dali bere alderdi estrapersonalengatik nabarmendu den pertsonaren eredu da. Dibujante handia izan da, baina ez kolorista. Bartzelonan "El Cristo" ikusi nuen, eta bai, efektu handiko koadroa da, baina ez du kolore handirik. Ez da gehien gustatzen zaidanetakoa. Nik inpresionista frantsesak atsegin ditut, Van Gogh, Toulouse Lautrec, etab.

— Koadro bat erostean zer da ordaintzen dena, egilearen ize-



Julio Galarta

na ala pinturaren benetako baliola?

— Beno ba, izena esan behar. Oso kalitate oneko erakusketak ikusi izan ditut Bartzelonan, Madriden eta egileak ezezagunak ziren. Izenak beti du zer ikusia, batez ere orain. Horrenbeste milioi Van Gogh-en lan batengatik eta bera bizi izan zenean ez zuen koadro bat ere saldu, orain aldiz kotizatuena da. — Pintura, berez ez al da elitista?

— Baliteke, orain ere gutxiengo bat da pinturaz aditzen duena. Gaur egun jendeak 30.000 pta. koadro bat erosten gastatu beharrean litografia bat erosten du, baina ezin daiteke koadro baten kalitateaz parekatu.

Arte merkantilista egiten da gaur egun. Jendeak ez du pintoreen ahalegina apreziatzen, kalidadea. Jendeari ez zaio irakasten. Eskoletan irakasten ez delako da gutxiengo bat pinturaz aditzen duena.

— Eta instituzioek zerbait egiten al dute?

— Ez dago babesik, Arrasaten "arte eta lanbide" eskola hartaz gain ez da ezer egon. Ez da egon interesa zutenak joan zitezkeen eskola bat egon. Udalak beste norabide batetik doaz.

Rugby: "Arrasate Kirolak"ek igotzeko ligilla jokatu

"Arrasate Kirolak" Rugby taldeak amaitu du, dagoneko, bere lehen fasea. Lortutako emaitzak bikainak izan dira, partidu guztiak irabazi bait ditu, aldeko 177, eta kontrako 4 puntu lortuz.

Fase honen balantzea egiteko asmoz, taldeko entrenatzailea den Peio Iriart iparraldekoarekin egon gara.

Emaitzak oso onak izan arren, kontutan hartu behar da maila oso bajua izan dela. "Arrasate Kirolak" herriko lehen rugby taldea dugu, bere kontrakoak, berriz, herrietako bigarren klubak izan dira, beraien gainetik maila handiagoko ekipoa dutelarik.

Klub bezala, Arrasatekoak atzerapen handia du. Entrantzailearen asmoa aurten kategoriaz igotzea, eta datorren urtetik aurrera infraestruturara bat sendotzen hastea da.

Aurtengo entrenamenduen helburua talde-jokua irakastea da, hiru ardatzetan oinarrituta dagoelarik:

— fase estatikoen jokoerak lantzea ("melée" eta "touché"),

— kontraerasoko defentsa garatzea (plakageak eta kontrarioari baloia lapurtu),

— jokalarri guztien partizipazioa izatea.



26 lagun dago senior plantilan

Bigarren fasea hilaren amaieran hasiko da, bost ekipoen arteko ligilla egingo delarik: Hernani, Bilboko "Universitarios" eta "Gau-Txori", Durango eta "A.K.". Hauetariko lehenengo biak "Euskadiko Liga"ra igoko dira.

Badirudi, beraz, 1985-87 bitartean desagertuta egondako talde hau berpizten ari dela, gehien bat iparraldeko honen lanari esker.

Senior mailan, 26 jokalarri daude, entrenatzaileak denak jokatzeko konpromezua hartuta duelarik.



1989KO SKY-KANPAINA

ASTEBUKAERATARAKO IRTEEREN PROGRAMA

URTARRILA
14-15 FORMIGAL
21-22 CAUTERET
28-29 CAUTERET

OTSAILA
04-05 FORMIGAL
11-12 FORMIGAL
18-19 CAUTERET
25-26 FORMIGAL

MARTXOA
04-05 CAUTERET
11-12 FORMIGAL
18-19 CAUTERET

APIRILA
08-09 FORMIGAL

PREZIOAK:

FORMIGAL: Irteera 5'00etan. Larunbatean **7.500 pta**
Autobusa+" Nieve Sol" Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

CAUTERET: Irteera 4'00etan. Larunbatean **7.950 pta.**
Autobusa + " L'Ecourelle " Hotela, erdi pentsioan + erremonteak

—Aste Santuko irteera (Martxoaren 24 etatik 27ra) Frantziako Pirineora (Prezioa jarri gabe)

—Pazko asteko irteera (Martxoaren 25etik Apirilaren 1era) Alpeetara

TICNES eta VAL D' ISSERE 42.000 pta.

autobusa+Le Lac apartamentua+erremonteak+tasak

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Besaiden,
astelehen, astearte eta asteazkenetan 18'30etatik 19'30etara.

Tfnoa 79 84 74


podiuma

“Kote” Lopez Rekarte, futbolaria

Kote, futbolarien familia bateko bigarren anaia dugu. Aita futbolaria eta entrenatzailea izana da. Lau anaietatik, hiru futboleak aritzen dira. Nagusia Bartzelonan, bera Eibarren, eta txikiena, 13 urte ditu eta Mondrako infantilekin jolasten du. *“Hau, hiruetatik onena da”*, harrিতuta uzten gaitu, *“Lopez Rekarte”* luzerako daukagu *“...Atletikek eta Errealak eraman izan nahi du, baina aitak hemen ikasten jarraitzea nahi zuen”*.

Beste asko bezala, Kote Makatzenen hasi zen, eta Mondran sei urtez ibili ondoren, hau da bere bigarren denboraldia Eibarren. *“Hasiera oso ona izan zen, jokatzeko bait nuen, gero denbora pila galdu dut letsionaturik”*. Zuntzapurketa, tiroia eta orkatila-egintza izan du oso denbora gutxitan, orain lau hilabete dela orkatilaz operatu zutelarik. Iazko denboraldian bakarrik dozena bat partidu jokatzeko aukera izan zuen. Joan den astean egun batzuetan deskantsatzen egon da, operazio ondoren bortxatu bait zuen bere errekupe-razioa, baina igandean konbokaturik egotea espero du.

Eibar taldea, horrela ikusten du, *“gure artean laguntasuna da nagusi, Mondran bezain ondo sentitzen naiz”*. Eta jokuari



Kote, Eibar Taldeko jokalaria dagokionez, “oso ofentsiboa da, beti joaten gara irabaztera”.

Galdetzen diogu bere estiloaz, anaiarekin konparatuz ea ezberdina den, *“ez, postu ezberdinetan jokatzen dugu, baina estiloa antzerakoa dugu. Indarra eta azkartasunean, teknikan baino, oinarrizten dugu gure jokoan”*.

Kote Errealzalea dugu, *“beti gustatu izan zait Errealak, beste ekiporik ez. Jokalariak?, azken boladontan Loren gustatzen ari zait asko; Archibald ere pila, eta Klinsmann alemaniarra. Gehien bat, nire antzera jokatzen dutenengan, azkarrak, indartsuak eta hutsune zabaltzaileak direnengan, alegia, fijasen naiz”*.

Kotek ez du ahazten denbora luzean bere ekipoa izan dena eta, ahal duenean, Atxabalpera hurbiltzen da. *“Ondo dabil denboraldi honetan. Ez igotzeko moduan, baina ondo...eta Mondrako onena Fede Aranbarri dugu”*, gaineratzen du.

Danok Mikelekin

Mikel Otxoari omenaldia datorren Martxoaren 19an izango da. Real Sociedad eta Osasuna taldeen arteko partidua jokatuko da, Mondrako Zuzendaritza Batzordeak eta Mike-len aitaren lagunek osatutako antolatzaille-taldearen asmoa Atxabalpe betetzea delarik.

Girotzeko, Indar Gorri eta Mujika peñen presentziarekin, Txaranga eta beste ekitaldiak izango dira.

Imanol Etxebarria eta Igor Gordobil Zubietara

Joan zen igandean Ohorezko Liga-ko Mondra taldeak Easoren kontra enpatatzea lortu zuen. Baina sorpresa ederra partidua ondo etorri zen: Expositok eta Kortabariak deitu zieten Imanol Etxebarria eta Igor Gordobil arrasatearrei bi egunetan Zubietara entrenatzera joateko.

Imanol atezaina dugu, eta Zubietara joaten den bere lehen aldia da; ez da hau, aldiz, Igorren kasua.

Jose Antonio Gay: azkenean ez

Nahiz eta hasiera batetan Jose A. Gay hilaren 10eko Anoetako ekitaldira gonbidatua izan, azkenean antolatzailleak planez aldatu omen, eta Jose A. gogoz gelditu zen. Arrazoi gisa, 400m.etan serie bakarra eta ez bi, egingo zela komunikatu zioten.

Tamalgarría Jose Antoniok onenen artean lasterka egiteko aukerarik ez izatea.


Denborapasen soluzioak

Aritgrama

$$(((8+2) \times 4 + 4) \times 2 - 8) \times 1 + 0 = 80$$

Jeroglifikus

Auskalo!



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

autoedizioa

Autoedizio hitza entzun eta norberak egin dezakeen zerbait datorkigu burura, baina zehazki, zer da? Autoedizioa azken urte hauetan garatzen ari den maketazio-era da. Honek artikulu, liburu edo idazki egileari bere artikuluaren itxura kontrolatzeko aukera ematen dio, inprentara orijinala eraman dezake- elarik. Hau da, orain arte egunkarie- tan kazetariak artikuluak idatzi baino ez zuen egiten, ondoren maketado- reek artikuluak zegokion tokian jar- tzeke. Autoedizioaren bidez kaze- tariak berak eman diezaioke itxura bere artikuluari eta era berean idaz- leak bere liburuari. Abantaila ugari eskaintzen ditu ohizko maketazio erarekin gonbaratuz gero. Batetik inprentara originala eramatean in- prentako kostuak asko merkatzen ditu; bestetik, inprentan kopiak bes- terik ez direnez egin behar prozesua asko arintzen du. Honetarako apro-

posa den ordenadore bat izanik edo- nork egin ditzake bere kartel edo txosten edo nahi dena bere etxean, teknika ikastea oso erraza bait da. Bi programa dira beharrezko bat testoa ordenadorean sartzeko eta bestea textoari itxura emateko. Behin testoa maketatuz gero inprimatuta edo diskoan eraman daiteke inprentara. Dagoeneko Espainian egunkari batzu teknika honetaz baliatzen dira "Dia- rio de Lerida" adibidez. Euskal He- rrian "Elhuyar" eta "Arrasate Press" bera aipa genitzake. Gutxinaka gu- txinaka argialetxe eta aldizkari ez- berdinak teknika honetaz jabetzen ari dira beren lanetarako. Garapenean dagoen teknika dugu hau. Ordenado- reak 150.000 pta balio du eta orain- goz programak ordenadoreak beste balio du, baina presarik izan ezean hiru bat urte itxaron, oso salneurri egokian lortu ahal izango duzue eta.

Eluyar Taldekoen kolaborazioa

Nereida

Nereida (Neptunoren sateliterik txikiena) 1949.ean aurkitu zuten eta harrez gero ezer gutxi ikasi dugu berari buruz. Bere orbita oso eszen- trikoa da. Punturik gertuenean pla- netatik 1,4 milioi kilometrora dago eta urrutienean 9,7 milioi kilometro- ra.

Goddard Space Center erakunde- ko Martha eta Bradley Schaeffer ikerlariak joan den urteko ekainaren 2ko *NATURE* aldizkariko alean, Nereida ez dela esferikoa eta itxura irregularra duela esan dute.

1987.ean egin zituzten neurketa fotometrikoen arabera, satelitearen kolorezko espektroak ez dauka beste satelite eta asteroideenaren antzik. Beren azterketa-tartean Nereidaren distira lautik baterako erlazioan al- datu zen. Hori azaltzeko modua, satelitea ez-esferikotzat jotzea da. Dena den, hau ez dator bat aurrikus- pen teorikoekin. Izan ere 400 km-ko diametroa duen objektu orok grabi- tatea dela kausa itxura esferikoa izan behar du (Nereidak 660 km-ko dia- metroa du).

Iñaki Irazabalbeitia

MENSAJEROS 79 96 97

MARWA
WORLDWIDE COURIER

**HIRIBARNEKO, ESTATU MAILAKO
ETA NAZIOARTEKO
BIDALKETAK**

Informa zaitez
Deia doan: 900 300 400

John Hiatt eta Graham Parker, edo musika entzutea plazer hutsa bihurtzen denean

John Hiatta. "Slow turning". A&M-Polygram

Graham Parker. "The Mona Lisa's sister". Ellisclan-twins

Hona hemen bi diska plazerrerako. Gozamina asetzen duten horietakoak. Azterketarako baino sentipenerako egokiagoak. Eta, ziur, hamar urte barru oraindik bizirik eta indarrean jarraituko dutenak. Gaurko bi klasiko, labor esanada.



John Hiatt (1952) estatubatuarra, kantari madarikatu bihurtzeko zorian dago. Ahots latz eta esanguratsuen jabe, bere musikan trinkoak ez du oraingoz ospe handirik jaso. Bere azken lan honetan, Estatu Batuetako ondare musikala-

ren osagarri gehienak nahasten ditu, rock-a, folk-a, musika beltza eta pop-a, kanta sorta bikaina eskainiz. Eta guztien lokarri, Hiatt-en ahots paregabea. Bortitza edo hunkigarrria, latza edo gozoa, alaia edo negartia izan daitekeen ahotsa. Kantariaren sentimenduak zuzen-zuzenean adierazten dituena.



Graham Parker (1952) britainiarra, bere alde tik, "new wave" mugimenduaren barnean sortua da,

Elvis Costello, Nick Lowe etab.ekin batera. Hau ere, Hiatt bezala, lan bikain eta ospe gutxi-koen egilea, orain arte. Baina iazko urtean agertu zen bere azken lan honetan, emaitza borobila lortu

duena. Badirudi patxada handiz egin duela diska hau Parker-ek, modako kantari ez izateak ematen duen askatasuna ondo aprobetxatuz. Eta, hala ere, gaur-gaurko musika irten zaio, egungo rock-aren aurpegirik freskoena eta biziena erakusten duena.

Zaila da gaurko musikaren basoan entresaka egitea, hain da oparoa eta sassiz betea. Baina tarteka suertatzen da baso horretan zuhaitz bakan eta lerdinak aurkitzea. Holakoetan, azterketa, etiketa, eragin eta kidetasunak alde batera utzi, eta intuizioa arrazoiari nagusitzen zaio, bihotza buruari, eta plazerra sortzen da.

Hiatt eta Parker-en lan hauekin, adibidez, musika entzutea plazer hutsa bihurtzen da.

Mikel Irizar

ENTZUN GAITUZUE? BA, ARI GARA!!



MUSIKA TRESNAK - Tfnoa: 79 29 09

Ingeleseko klaseak



maila guztietarako
INGELESERAKO SARBIDEA

Iturriotz, 25 Tfnoa: 79 90 36
Arrasate

Bidekurutzeta, 19 Tfnoa: 76 30 01
Bergara

O S T A R K U D A N T Z A L E K U A

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Urizarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

Branka jatetxean

Sail berri bati ekiten diogu orain-goan; noizean behin-ka, inguruetako jatetxetako sukaldariekin elkarrizketak eta



hauen bidez beraiek aukeratutako errezetaren bat ezagutuko dugu.

Gaurkoan "Branka" jatetxera jo dugu eta bertan Asun Iturbe "Santamaña" sukaldariarekin solasaldi bat izan dugu.

— Nondik datorkio "Branka" jatetxeari bere izena?

— Branka itsasuntziaren aurreko muturra da eta dakigun moduan jatetxe honen jabeak kostaldekoak dira.

— Jatetxe honen izenak itsasoa-ekin zerikusia dauka, eta eskeintzen dituzuen jakiek ere bai?

— Ez bereziki. Edozein jatetxetan bezala eskaintza zabala dugu. Egunekoan haragia da jaun eta jabe. Bigarreneko lau edo bost aukera izaten dira eta horietatik bat bakarra arraina.

Kartan, berriz, arraina egunekoetan baino gehiago eskatzen da,, esan beharra dago, bestalde, arrain gehien eskatzen dutenak emakumeak izaten direla.

— Nor arduratzen da zuetatik jeneroaz?

— Neu naiz horren ardura daukana. Egunero erosketak egiten ditut eta sukaldearen antolamenduaz jabetzen naiz.

— Zertan ematen duzu eguerdira arteko denbora?

— Beno, eguneko gertatzen nahikoa lan izaten dut, eguerdiko

12,30etarako dena gertu behar izaten da eta. Kartan egiten den lana momentukoa izaten da gehiena, ezin da hainbeste aurreratu.

— Hortan, zerk ematen du lan gehien: kartak ala egunekoak?

— Ezberdina da, ez dakit. Esan daiteke egunekoarekin lasaiago ibiltzen garela, gainera kartan presentzia edo itxura gehiago zaindu behar da.

— Jaki bat mahaitik jan barik bueltan datorrenean, nola jokatzen duzue?

— Ez da oso normala bainan horrelakoetan galdetu egiten dugu ea ez zaien gustatu, edo...eta beste zerbait nahi duten...

— Eta orain, Asun, bota arrasatearrentzat errezeta eder bat.

— "Arrainez betetako piperrak" zelan prestatzen diren azalduko dizuet.

Baina hau, hurrengo astean.

Morokil Taldea

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta
Jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

Eroski Kontsumatzaileen Komitea
Informazioa eta Formazioa
Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

PAZI-OLA SA
Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETAK

ARRASATE
Press
Bidaliezazkiguzuzure kolaborazioak

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Maratoia

Atsegin al duzu LSD? Ez, ez ikaratu, ez gara drogaz ari, beste gai bat ukitu nahi dugu: Long Slow Distance, Footing, Distantzia Luze Geldoa, edo zuk nahi duzun bezala, hain zuzen.

Gure herri honek harrobi ona du maratoui-korrikalariak emateko, eta hauetako batzuk, Eusko-ranking barruan ederki kokaturik gainera.

Horien osasuna ondo dagoela esango genuke. Batzuetan, ordea, miaketa mediko bat egin ondoren, edo kontsultan, ikara galanta sartzen zaie gure maratoui-zale hauei, beren gibela haunditua dagoela esaten dietenean; are gehiago gero odoleko frogak egin eta Transaminasak (gibela aztertzeke frogat batzuk) balore normala bezala hartzen denetik, gora daudela ikusi ondoren. Dena den, ez harritu, maratoui-korrikalarien artean bata eta bestea normalak dira eta.

Gibela, orduan, zergatik haunditzen da? Eta transaminasak, igo, gainera? Arrazoia hau da: Ariketa fisikoa eginez zelula asko apurtzen dira eta horrela, balore hori, goian agertzen zaigu; horretaz aparte gibela

almazen bihurtzen da, glukojenoa (azukre-moeta bat) gordez, gero karrera egiten ari denean erabili ahal izateko; eta horregatik, gibela ukitezakoan, normala dena baino haundiagoa aurkitzen da.

Horrela ba, maratoui-korrikalari zaretenok zaudete lasai, zeuen gibela ondo dago eta...

Baina zuk, irakurle, footing egiten ez duzun horrek, transaminasak balore normaletik gora eta gibela haunditua baduzu, zoaz azterketa sakon bat egitera, zure gibelak problemaren bat izango bait du seguraski.

Eta lehenengo hartu behar duzun neurria hau da: alkohola baztertzea! Ez ahaztu!

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6
Tfnoa: 79 25 98

ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Pisu hartu nahi da errentan. Tfnoa. 799525 (gauzez)
- Neska ingelesak pisuan bizi nahi luke beste batzuekin Arrasaten. Tfnoa. 762575 (Bergara). Goizez deitu (DENISE).
- Neskak pisuak nahi luke Arrasate edo inguruetan beste batzuekin bizitzeko. Tfnoa. 781189 (gauzez).
- Merkataritzarako lokala hartu nahi da errentan. Nahiago herriaren erdigunean. 100 m2. Tfnoak. 794569—798821.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da. 38m2. Uribe Auzoan. Tfnoa. 790870.
- Merkataritzarako lokala eskualdatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa. 798637.
- Pisu salgai Makatzenan((17-4. A) Tfnoa 79 45 24
- Pisu salgai Erguin aldean, 3 logela, egongela, bainua eta sukaldea. Tfnoa 79 85 91
- Garajea erosi nahi nuke Arima Zuri Plaza ondoan Tfnoa 79 47 00
- Pisu hartu nahi da errentan. Tfnoa 79 70 72
- Pisu hartu nahi da errentan, ahal dela altzari eta guzti. Tfnoa 79 33 99.
- Garaje salgai Erguin kalean. Argibide gehiagorako galdetu PALen (Uriburu Etorbidea,3.
- Pisu salgai. Anboto,8-4. Tfnoa 79 91 48
- Erdiko kalean pisua salgai (9—2º). 3 logela, sukaldea, bainugela. Tfnoa. 796765.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350

- Saldu edo errentan eman nahi da 1. pisua, herriaren erdialdean, apartamentu, estudio, bulego, kontsultategi...izateko pres-tatua. (eta atikoa, etxe berean). Tfnoa. 795125
- Pisu salgai, altzariekin, Makatzenan (5—4º A) Tfnoa. 799357

LANA

- Tolosako Udalak Artxibari lanpostua lehiaketa oposizio bidez betetzeko deialdia egin du. Deialdiaren oinarriak 89.01.23 ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira. Eskariak aurkez-teko epea Otsailaren 27an bukatzen da.
- Zarauzko Udalak ERDI MAILAKO TEKNIKARI lanpostu bat (Aparejadore, Arkitekto Tekniko, Obra Publikoeta-ko Laguntzaile edo Injineru Teknikoa) betetzeko deialdia egin du. Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzan aurkitzen dira, interesatu guztien esku.
- ZURE DENDA enpresak ondoko lanpos-tu hauek bete nahi ditu:
 - * Parket eta kortxo jartzaile bat.
 - * Ate-jartzaile bat.
 - * Pintoreak.
 Interesatuak dei (943) 60 13 51 telefo-nora.
- Deba Beheko enpresa batek Marketing Saileko Zuzendari-postua bete nahi du. Interesatuak, 57. postakutxara bidali be-har dute beren curriculumak eskuz idatzita,

bertan 17 DM erreferentzia jarriz.

- Deba Garaiko enpresa batek 8 lanpostu bete nahi ditu. Interesatuak Arrasateko INEMeko bulegoetara (Garaibai, 3) joan behar dute.
- Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak Goimailako Teknikariak behar ditu ondoko lanpostu hauek betetzeko: Zerbitzu-Ikustatzailea; Giza-Baliabideak; Informazio Sanitarioa; Plani-fikazio Ekonomikoa; Gaixoen Atentzio-Zerbitzua. Eskari-orriak eta gainerako informazioa: H.A.E.E.ren Egoitza, Uni-berbitsitate Zaharra, Oñati.
- Hydraulix Ring, S.L.ak bi lanpostu hauek bete nahi ditu Elgoibarren: Fabrikazio Teknikaria eta montadorea. Interesatuak deitu 74 21 30 telefonora, Solano Jau-nagatik galdetuz.
- Igeltseroak behar dira: autonomo kontra-tatuak. Soldata elkarrekin erabakitze-ko. Interesatuak deitu 71 74 61 tfnora.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailekoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Eskiak saltzen ditut prezio onean. Deitu 79 09 00 (Jose Felix)
- Ia estreinatua gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Bigarren eskuko kotxe bat erosi nahi nuke. Juan Luis 79.71.64
- Umeentzako kotxea salgai. Tfnoa 79 71 13



ARRASATEN HILAK

- Ana Maria Aiastui Lonbide, 88 urte
- Adriana Murillo Cruz, 64 urte
- Luis Hernandez Notiboli, 56 urte
- Adelaida Pan Prol, 84 urte
- Juan Luis Espiga Estulo, 48 urte
- Florentina Caballero Torres, 94 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: _____

Zehar kale estalia 1, 1b 20.500 ARRASATE Tfnoa 797164



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
 Jose M^a Gomez doktorea
 A. Otalora doktorea
 A. Estomba doktorea
 M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previasa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate

Inpresio ona!



Inprimategia eta
 autoedizioa
 zerbitzuak

Ozaeta 1, tinoa: 76 27 41 Bergara

**PUB
 HAIZEA**



astero
 zuekin
**ARRASATE
 PRESS**



ADMINISTRARIAK

(esperientzia ez da beharrezkoa)

Erref. 8952

Hernanin, Andoainen, Billabonan, Tolosa eta Goherrin ditugun Sukurtsaletarako Administ-rari postu batzuk bete behar ditugu. Lehenasuna emango zaie Enpresa-Diplomatuei eta Ekonomi Zientzian Lizentziadun mailako prestakuntza dutenei. Bereziki baloratuko ditu-gu jendearekin harremanetarako eta merkatalgintzarako errekursoak, Euskararen ezagu-pidearekin batera. Ezinbestekoa izango da aipatu zonalde horietan bizitzea eta soldaduzka bukatua edukitzea.

Interesatuak, LKAren edozein bulegotan jaso dezake eskaera-orria eta Lan Kide Aurrez-kiko Pertsonaleko Dptu. ra bidali, Posta Kutxa 34, ARRASATE (Gipuzkoa), gutunazalean erreferentzia adieraziz eta harremanetan jartzeko telefono-zenbakia jarritz.

Eskaerak jasotzeko epea, 1989ko Otsailak 24.



CAJA LABORAL POPULAR
 LAN KIDE AURREZKIA



HIRU S.A MEKANIZAZIOAK

- * Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera
 - * Fresatzeko makinak
 - * Zenbakizko kontrola
 - * Mekanizazio - zentruak
 - * Tornuak
- * Artezteko makinak, etab.

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak:79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax:79 80 97

ELHUYAR KULTUR ELKARTEA

Posta kutxa 361
Tf: (943) 429945
20080 - DONOSTIA

SOFTWAREAK

Ordenadorean ere gaiak euskaraz ikas daitezke. Eskolan nahiz etxean egizu proba programa hauekin.

	PREZIOA %6 BEZ barne
Logo	2.915
Sinusoidea	2.335
Geografia Politikoa (herriak)	2.335
Geografia Fisikoa (ibaiak)	2.335
Flip-Flop sinkronoak	1.750
Flip-Flop asinkronoak	1.750
Ohm-en legea	1.750
Fisikako kontzeptuak, testak, jokoak (9 programa+liburua)	12.000
Euskal Deklinabidea	2.335

EZ GERATU ATZEAN!

Aste honetan, askotan entzuna dugun galdera bat agertzen zaigu aurkezten dugun lanaren izenburutzat. Gure kolaboratzaileak, bere ikasketak joan zen ikasturtean bukatu zituen. Galdera gogorra egiten dio bere buruari, baita erantzun latza eman ere.

Eta irailean zer?

Irailean egina -ez dizut ezer agintzen- platanoen hostoek adarretan atxikita jarraituko dute; mendikateak, isil eta geldirik, ez dira beren leku berberetik mugituko; behar bada, ezer ez bait da ziur mundu zikin honetan, uhainek beren etengabeko ikaran iraungo dute. Enparantza erdian kokatuta, irailean aldatuko den gauzarik ez dut ikusten; behintzat, prezeski irailean aldatu beharko lukeenik ez. Hala ere, nahiz eta behin eta berriz errepikatu, ezetz, ezer ez dela aldatuko, ez dut lasaitasun izpirik aurkitzen.

Munduak, zuk ikasketak bukatuak badituzu ere, bere kupidarik gabeko biraketan jarraituko du. Tren honek ez du geltokirik. Oina lurretik altxatu eta munduaren jirabirak pikutara bidaliko zaitu. Bagoiaren barruan mugitu zaitezke, baita, kontuz ibiliz gero, bagaoiz aldatu ere.

Baina trenetik kanpora ez dago bizirik ateratzerik.

Orain arte, Irailak ekartzen zuen berririk nagusia (dena ekainean aprobata bazenuen, jakina), oporretako azken txanpa izatearena zen. Bidaiak, farra basatiak, jai giroa bukatuak, kurso berriari heltzea besterik ez zenuen egin behar. Ikasturte bakoitza, irail bakoitza, bide ezagun baten hurrengo urratsa. Eta ahalegin handirik egin gabe, batetik bestera mugitzen zenuen zure ipurdi geldikorra. Baina oraingoan bukatu zaizu txoiloa.

Hortxe, enparantza erdian gelditu zara, egunkari bat eskuetan, azken izkinak ere jorratuz, batez ere azken izkinak. Alboan, zu bezalako mutil batzuek gainerako bankuak betetzen dituzte. Eta beraien begiradetan platanoen hostoak, mendikateak, beraien eskuak ez dira apenas mugiketan.

Dagoeneko ez dago urrats samurrik. Hamazortzi urtetan ezeren truke lan egin ondoren, kalera bidali zaituzte, zure izena goikaldean duen papertxo bat eskuetan duzula. Espaloian, hosto ihartuak eta paper zaharrak arrastaka darabiltza iraileko haizeak, zure titulu distiratsua tartean.

Iadanik ez dago pauso errezik. ZUre oinek, apika, indar handiagoz zapaltzen dute, baina azpian belarra marmore bihurtu da, eta lur horrek lore bereziak ematen ditu: inpresoak, polizak, eskaerak, izen-emateak, epeak, tinbreak, telefono-deiak, fotokopiak, argazkiak, nazka, elkarrizketak, higuina, denbora, nazka, platanoen hostoak, egunkaria, mendikateak, iragarki laburrak azken izkinetan, nazka, eskuak geldirik, enparantza erdian eserita higuina eta biok, laztana.

Dunper Limard, 18 urte



A U Z O L A G U N

Gure **JANARIN** jaki prestatuak eta aurreprestatuak aurkezten dizkizugu.

Arrasaten, oraingoz, Urbe Auzoko **EROSKI** supermerkatuan aurkituko dituzu.

■ **Berriemale berriak Arrasaterako.** Euskadi eta Arrate irratiek berriemale berriak estrenaitu dituzte Arrasate eta ingururako. Bego Zubiak astelehenetan eta ostegunean hitz egingo du Euskadi Irratiko "Goizean behin" irratsaioan, eguerdiko hamabiak eta ordubata bitartean. Juan Luis Azkaratek bere aldetik, ostiralero egingo du berba Arrate Irratian, eguerdiko ordubata inguruan. Bego eta Juan Luis ARRASATE PRESSEko kazetariak dira. Poliki bada ere, badoa gure herria euskal komunikabideen mapan dagokion lekua hartzen.

■ **Arrasate "Katu kale"n.** Arrasateko Gaztetxearen inguruko gorabeherak ETB1eraino heldu ziren. "Katu kale"n hain zuzen, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea eta Gaztetxe hiru ordezkari azaldu ziren, bakoitzak bere arrazoiak emanez. Alkateak bere azalpena euskera huts eta onean eman zuen bitartean, Gaztetxeoak, urtetan politikoen artean batipat zabalduz joan den euskararen inguruko erritual folklorikoan jausi ziren. Hasteko, "Arrasateko Gaztetxearen Asanblada, los de la Asamblea del Gaztetxe de Arrasate creemos que...". Jarraipena erdaraz eta amaitzeko "...y si no, borroka". Behialako "las emakumes fueron con los umetxos al son del txistu", heavy kutsuaz.

■ **Egungentia.** Sasoi batean, oso goiz jaikitzen nintzen batzuetan, bezperan emandako irratsaioen errepikapenak eman ohi zituzten Euskadi Irratian. Azken egunotan, oster, sekulako sorpresa atsegina hartu dut, irratia ixotu eta "Egungentia" irratsaioa entzun dudanean. Informatiboetako ez bezalako ahots lasai eta pausatuak eguneko prentsa idatziaren berri ematen dizu, orduari ondo doakion musika tartekatuz. Joseba Agirretxea ondarrutarra da mirakulu txiki horren egile eta aurkezlea. Euskadi Irratian egunero, goizeko 5etatik 7etara.

■ **"Euskal Telebista, uuuuuuuuh..."**, Goizeko zortziak baino lehenago, bizarra moztu bitartean askotan, hor ari dira irratiz ETBri egin dioten abesti berria jo eta ke errepikatzen. Saiatu naizen arren, ordu horretan gehiegi ezin saiatu egia esan, oraindik ez dut letra osoa harrapatzerik izan. Ez dakit. Ez nau gehiegi konbenzitzen. Codorniu usaina hartzen diot. Oso ahots politak, baina ezin aditu zer esaten duten. Baietz hori ere Bartzelonan eginga izan!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Funtzioa.** Ostiralean, hilak 17; 21,00etan. Helduentzako programa humoristiko berria hasten da. Xabier Otaegi eta J. Ignacio Ansorenaren ("Txirri" eta "Mirri" ezizenaz ezagunagoak dira) eskutik, eta zuzenean. Sketchek, elkarrizketek, konkurtsoak eta saio musikalak osatuko dute programa. Aste honetan, "Salvation Army"ri buruzko sketcha izango duzue. Zorte on.

■ **Pilota: Bikotekako Finala.** Ostiralean, hilak 17. 10,45etan, Donostiako Anoeta pilotalekutik zuzenean, aurtengo bikotekako finala. Retegi II - Arretxe, Ladutxe - Tolosaren kontra. Oso final interesgarria espero da, frontoia publikoz beteko delarik. Batzuk badakite zer den final hau irabaztea; besteren bat, aldiz, Pilotaren Historian sartzeko desiatzen dago...

■ **"Arturo Erregearen zaldunak"** ("Knights of the Round Table", 1953). Asteazkenean hilak 22. Zuzendaria: Richard Thorpe. Antzezleak: Robert Taylor, Ava Gardner, Mel Ferrer. Ingalaterran pakea ezartzeko asmoz, Pendragoneko Arthurrek, Sir Lanceloten laguntzaz, bere etsaiak garaitzen ditu eta behin herrialdeko errege koroatua izan ondoren, Guinevere printzesarekin ezkontzen da.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

SORGINA IRRATIA (105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Ostirala

7-9 KK Profe puag

7-9 Piramyd

10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua

11,30-12,30 Beltza blues klub

Larunbata

8-9 Onda katxondoa

9-11 Dana ondo dabil

11-1 Banpiroak

Igandea

10-11 Puuagg!!! (Musika eta kontra-informazioa)

Asteartea

7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat

8-10 Pufa kalufa

10-11 Bai zera!

11-12 Irrintzi

Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria

7-8 Exterminioa helburu

8-9 Mara-mara (Emakumeen





Asanblada)

9-10 Itxungitako dragoie (AED)

10-11 Amen Jesus!

11-12 Gau erdiko klasikoak

80
||

	4	0	1
6	2	1	
4	8		3
4	3	7	5
	2	8	1

↑

Aritgrama

Markatutako puntutik hasita, saia zaitez emandako kopurua lortzen, horretarako ahalbide hauetaz baliatuz


*Aldeetara zein gora eginez, BATU.

*Behera eginez, KENDU.

*Zeharka bera eginez, ZATITU.

*Zeharka gora eginez, BIDERTU

Jeroglifikus



Zer da?

Soluzioak: 19. orrialdean

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES

(Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra)

Ekaitzaren ondoren barealdia izango duzu. Izarrak ere zure alde dituzu. Ahalegintxo egiten baduzu lorpen handiak lor ditzakezu. Momentu onean zaude.



TAURUS

(Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra)

Kontuz ibili, bidea labankorra da eta. Ez erosi kotxerik merkatuko aukerak ondo aztertu gabe, bestela oraingoan ere damutuko zara eta.



GEMINI

(Maiatzaren 21etik
Ekainaren 21era)

Apurka-apurka baina seguru zabilta lanean: ez duzu kezkatzeko motiborik. Bestalde, psikologo ona bazara ere, ez fidatu gehiegi zure intuizioaz.



CANCER

(Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra)

Aspaldi honetan zorioneko zaitugu. Hala ere, ez zaude erabat konforme, zerbaiten faltan zaude, baina ez zaitez kezkatu beste batzu egoera okerragoan daude eta.



LEO

(Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra)


Oso gogor ari zara, ez eskatu hainbeste zeure buruari. Gau-giroak ez dizu onik egingen, txanpainak ere ez. Neurtu zure indarra.



VIRGO

(Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra)

Estuegia zara eta horrek ez dizu zoriontsu izaten uzten. Lankideekin ere lehorregia zara. Soluzioa erreza da: emaiozu martxa gorputzari.



LIBRA

(Irailaren 24etik
Urriaren 23ra)

Alproja galanta eginda zaudena! Horrela jarraituz gero, marka guztiak apurtuko dituzu. Lagunekin, ondo; etxean problemaren bat edo beste izan dezakezu.



SCORPIO

(Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra)

Lanez leporaino bazabilta ere, problemak konponduz doaz eta, agian, laster, gupasak egiteari utzi ahal izango diozu. Beste proiektu hori ere gauzatzen hasiko da.



SAGITARIUS

(Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era)

Ez nekatu burua alperrikako gogoetekin. Ez proiekturik egin eta hartu bizitza datorren moduan. lagunek asko lagunduko dizute.



CAPRICORN

(Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra)


Lan gehiegi egiten duzu eta lagunak ahaztuxe dituzu: Zure bizimoduari oreka falta zaiho. Zerbaitik kezkatuko zaitu.



AQUARIUS

(Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra)

Bidaia bat egingo duzu, baina honek ez dizu aldaketarik ekarriko. Betiko bizimodu eramaten jarraituko duzu, hau da, betiko bizimodu petrala.



PISCIS

(Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra)

Karnabaletako ajea duzu oraindik ere. Zure lagunek estima handia dizute, oso atsegina zara eta. Lana kolokan duzun arren, aukera gehiago izango duzu.

Zeintzuk diren Arrasate Musikal-eko ikasleen preferentzia musikalak

Azken ikasturte honetan, 1988-89an hain zuzen ere, 1.030 matrikula egin da Arrasate Musikalen. Hauetatik asko, 357 zehazki, solfeoari dagozkio.

Hona hemen gainetikoen zerrenda gehienetik gutxienera:

- Pianoa114
- Akordeoia85
- Kantu Korala82
- Armonia71
- K. Instrumentala69
- Biolina61
- Balleta53
- Flauta29
- Biolontzeloia19
- Gitarra16
- Txistua11

- Tronpeta10
- Klarineta.....9
- Perkusioa9
- Kantua7
- Biola7
- Fagota7
- Oboe6
- Tronpa.....6
- Tronboia3
- Kontrabajoa1
- Tuba1

Zenbat euri egiten ari den azkenaldian metro²ko

Azken hamar urtetako estadistikak (1979-1988) jarraituz ateratzen da:

Euri gehien egin duen urtea 1979 izan dela, guztira 2.277 litro ur m²ko bildu zelarik.


Hamar urteko epe honetan, hila-beteko bataz besteko euri ur-kopurua 134 litrokoa izan delarik, 1988ari dagokionez, hona hemen hilez-hi jaso den ur kopurua:

- Urtarrila150 l/m²
- Otsaila163 "
- Martxoa162 "
- Apirila153 "
- Maiatza96 "
- Ekaina96 "
- Uztaila88 "
- Abuztua74 "
- Iraila79 "
- Urria14 "
- Azaroa23 "
- Abendua40 "

Ikusten denez, bederatzi hilabete daramagu errezkadan euri-kopurua media azpitik jasotzen. Noiz arte?



HERRI IRRATIA



Novios 89

BIKOTE SARITUENTZAT ERREGALIAK

Erregaliak

- Andregaiaren jantzia
- Senargaiaren jantzia
- Sarrerako haltzaria
- Sukalderako mahai eta aulkiak
- Multihogar aseguria
- Pinuzko armairu sendoa
- Apartamenduaren alokairua (15 egun "Costa del Sol"en)
- Edredoi Nordikoa
- Ezkontza egunerako musika

Eskainia

- Bayon lenteria (Donostia)
- Berriki (Zumarraga)
- Gure Ametsa Haltzariak (Azpeitia)
- Elgarresta (Urretxu)
- Lagun Aro Aseguruak
- Masic S.A.
- Baskotour Bidaiak

Ohedekor (Azpeitia)
IZADI musika taldea (tfno 83 49 65)

Zozketa Otsailaren 23an, arratsaldeko 5,30etan

Aurten ezkontzeko bazara bete orri hau eta bidali
LOIOLA HERRI IRRATIRA, AZPEITIA

Izen abizena

Zuzenbidea

Herria Telefonoa

Andregaia

Senargaia

Ezkontzako eguna (gutxi gora behera)